

¿TE APETECE UN CAFÉ?

CAFÉ DE CALIDAD ÓPTIMA

SALADO

TORTILLAS INMEJORABLES

DULCE

NUESTRA BOLLERÍA



*Donde siempre
encontrarás tu sitio*

LaSalle Berrozpe
LSB
Andoain

CONTACTO

✉ siambatkafeteria@gmail.com

📷 [@siambatkafetegia](https://www.instagram.com/siambatkafetegia)

☎ 943 33 32 31

HORARIO



De Martes a Domingo
6:00-20:30 h

SIAMBAT S.Koop, kafetegia bat da, non Urnietan kokatua dagoen. Kafetegiko bazkideak lau izango dira; Urko, Ainhoa, Maddi eta Irati. Gainontzeko kafetegien artean, deigarria izango dela aipatu behar da, bezeroentzako baliagarria izango den aplikazio bat izateaz gain, pertsonen beharrak asetu eta beraien berezitasunak kontuan hartuko direlako, produktu eta zerbitzu desberdinak eskainiz .



Ecofriendly: Lehenik eta behin, kafetegia “Ecofriendly” izango da, kafea naturala eta ekologikoa izango delako eta mahaiak eta aulkiak berrerabilitako materialekin egingo direlako. Beraz, gure enpresak ingurumenari garrantzia ematen diola aipatu behar da, material horien bitartez kalitate oneko produktuak eta objektuak aurkitu daitezkeelako.



Bestalde, kafetegi **berritzailea** ere izango da, bezeroak nahi duenean eta edonon erabili ahal izango duen aplikazioa baita. Aplikazioaren bitartez, bezeroak mahaiak libre ala okupatuak, desinfektatuak ala desinfektatu gabe dauden jakin ahal izango du. Gaur egun bizitzen ari garen egoera kontuan hartuta, laguntza handiko proiektua izan daitekeela uste dugu, bezeroak denbora errealean mahaiekin denbora guztian gertatzen dena jakin dezakeelako.

Aplikazioaz gain, eman beharreko zerbitzuan oinarrituta eta bizitzen ari garen egoera kontuan hartuta, Covidaren ondorioz, beharrezkoa iruditzen zaigu, online zerbitzua eskaintzea, non bezeroak gosariak, otorduak...etxera eramateko eskatu dezakeen. Zerbitzu honen bitartez, bezeroak gure produktuaz gozaten jarraitu ahal izango du nahi duen momentuan eta tokian. Gainera, gaur egun elikadura desberdinak daude, hau da, gizarteak ohiturak aldatu eta beraien elikadurari garrantzi handia eman dio. Gainera, pertsona askok alergiak edo beste nolabaiteko arazoak izaten dituzte. Beraz, kontuan hartuta bezero mota desberdinak etorriko direla, bakoitzaren beharrak asetzeko baliagarriak izango diren produktuak izango ditugu.

Beraz, aurreko dana kontuan hartuta, SIAMBAT S.Coop, berritzailea izango den enpresa bat izango da, non aplikazio bat izango duen kafeteriak dituen mahaiak eta aforoa nola dagoen jakin ahal izateko. Gure enpresa, irabaziak kafetegiaren bitartez izango ditu, baina beste enpresaren bat gure aplikazioa erabiltzeko nahia izanez gero, erosteko aukera izango du.